

SAGASTIA-MANZANAL

Sagastietako jardueren egutegi praktikoa: abendua, urtarrila eta otsaila.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 17/01/2014 · 16:42 · Editar

Sin comentarios



Datozen hilabeteetan sagastiak geldialdi begetatiboa izango dira. Egin beharreko lan garrantzitsuak hauek dira:

ABENDUA: LURRA

- Arbolak landatzeko asmoa badugu eta lurra prestatu gabe badugu, orain egin beharko dugu, lurra egoera onean aurkitzen bada, noski. Egin beharreko lanak hauek dira:
- Lurzorua garbitu.
 - Ur gehiegi izanez gero, drainatze lanak egin.
 - Subsoltatu.
 - Lurpeko ongarririketa.

- Errotaitzurra pasa.
- Behi, ardi edo zaldien zimaorra zabaltzeko garai aproposa da.

ARBOLEN FORMAZIOA

Inausketaren hasiera da. Arbola gazteetan formazio inausketa bat egingo dugu, aukeratutako gidatze sistemaren arabera. Arbola helduetan fruktifikazio inausketa bat egingo dugu, aireberritzea eta argitasuna bilatzeko. Adar lehorrak eta txankroak kendu behar dira orain.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Arboletan geratu diren fruituak lurrera botako ditugu ahal den neurrian, bere deskonposaketa errazteko. Txankroz beteriko adarrak mozen baditugu, sagastitik aterako ditugu, hurrengo udaberrian infekzio iturri bat ez izateko. Aurreko hilabetean egin ez badugu, orain kobrearekin tratatuko dugu, ahal diren onddo guztiak erretzeko eta arbolak garbitzeko.

URTARRILA-OTSAILA:

LURRA

Sagasti berrietan aldatu baino lehen honako ongarririketa egitea komenigarria da. Materia organikoaren maila hobetzeko zimurto behar da eta lurreko analisiaren emaitzaren arabera, potasio, fosforo, magnesio eta phan, ongari mineralak eta karea botako ditugu. Lurra prestatu ondoren, arbolak aldatuko ditugu.

Landaketa markoa edo arbolen arteko distantzia, erabilitako patroi eta gidatze sistemaren arabera erabakiko dugu:

		Arbol en artean	Lurro artean
KOPA	MM106	4-6	6-7
	EM7	4-6	6-7
	FRANKOA	7-8	7-8
ERDIKO ARDATZA	MM106	5-6	8,5/3,5
	EM7	5-6	8,5/3,5
	FRANKOA	7	7

Aldatu aurretik, hautsitako sustraiak eta adarrak moztu behar dira. Garrantzitsua da txerto puntua beti airean egotea, frankeorik ez izateko.

ARBOLEN FORMAZIOA

Inausketa egin behar da. Arbola gazteetan formazio inausketa bat egingo dugu, aukeratutako gidatze sistemaren araberak. Ardatzari kompetentzia egiten dituzten adarrak, angulo itxiarekin jaiotzen direnak edo oso baxuak daudenak kenduko ditugu.

Arbola helduetan fruktifikazio inausketa bat egingo dugu, aireberritzea eta

argitasuna bilatzeko. Kopa itxura duten arbolei barruko aldea garbituko diegu eta erdiko ardatza itxurakoei adar xurgatzaileak kenduko dizkiegu eta horrekin batera adarren puntak lurrari begira egoten saiatuko gara. Sekzio handiko adarrak moztu behar baditugu, gehienez 1 edo 2 moztuko ditugu, arbolaren oreka ez galtzeko.

GAITZAK ETA IZURRITEAK

Urtarrilean posible da tratamendu bat egitea Kaltzio Polisulfuroarekin, zorriak, kobinillak eta beste intsektu batzuk hiltzeko, eta era berean arbolak goroldioz eta likenetaz garbitzeko.

Iturria: Sagardoaren Lurraldea 33 Boletina
Egilea: Aitor Etxeandia (SAGARLAN S.L.).

Tags: actividades, calendario, egutegia, manzanal, manzano, sagarrondoa, Sagastia

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

- Azokak-Ferias
- Ekitaldiak-Eventos
- Errezetak-Recetas
- Espereztiak-Experiencias
- Formazioa-Formación
- Gastronomia-Gastronomía
- Historia-Historia
- Kultura-Cultura
- Lehiaketak-Concursos
- Museos-Museoak
- Sagarra-Manzana
- Sagastia-Manzanal
- Sidra-Sagardoa
- Sidrerias-Sagardotegiak
- Turismoa-Turismo

Post Recientes

- 

Txotx boladaren irekiera
Saizar sagardotegian.
- 

Gozatua Hernanin:
sagardogintza, sarobeak eta trikuharriak.
- 

Martin Berasategik inauguratu zuen txotx bolada Urbil Merkatal Gunean.
- 

Sagardoaren Hiztegia:
Izurriak eta animalia onuragarriak.

Anterior post

Feria de inicio de temporada del Txotx en Donostia. Txotx denboraldia hasierako Feria Donostian.

Siguiente post

LA PATULINA. Ficha técnica.LA PATULINA. Fixa teknikoa.



XIII. Sagar Uztako sagar tarta irabazlea.

Tu comentario / Zure komentarioa

Registrado como Sagardoaren Lurraldea. Desconectar »

Enviar

Comentarios recientes

J.M de Amassorrayn en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Kalakan abrirá mañana la nueva temporada de txotx | NON SERVIAM en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Sagardoaren Lurraldea en **XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.**

agandamin en **XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.**

Aritz en **Donostiako XXVIII.**

Sagardo Eguna, irailaren 7an.